

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### INGURUGIRO GAJETARAKO IKASTEGIA

#### **Vitoria-Gasteizko udalerrian hiri-nekazaritza ekologikoko ekimen komunitarioak egiteko dirulaguntza-deialdiaren oinarriak**

Besteak beste hauxe erabaki zuen Vitoria-Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko zuzendaritza kontseiluak 2026ko otsailaren 25ean: Vitoria-Gasteizko udalerrian hiri-nekazaritza ekologikoko ekimen komunitarioak egiteko dirulaguntza-deialdia eta horren oinarriak onestea.

Vitoria-Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren aurrekontuko 0110.1722.47107 partidaren "Hiri-baratzezaintzako ekimenen kolektiboentzako dirulaguntza" 20.000,00 euroko zuzkidura dago 2026ko ekitaldiko laguntza deialdiak berekin dakartzan betekizunei aurre egiteko.

#### **1. Deialdiaren esparrua**

Vitoria-Gasteizko Udalaren Tokiko Erakunde Autonomoa den IGIren bidez (aurrerantzean, IGI), hiriko eta hiri-ingurueta baratzezaintza eta lorezaintza ekologikoaren praktika bultzatzen ari da, hiriko azpiegitura berdea ehuntzeko, tokiko elikagaien eta elikagai ekologikoen ekoizpena eta kontsumoa sustatzeko, eta elikadura osasungarria, herritarren parte-hartzea, gizarte-lotura, topaguneak eta aisialdi aktiboa bultzatzeko.

Ekimen horiek gure gizartean kontzeptu hauek sartzen lagundu behar dute: tokiko elikagaien ekoizpena, elikadura osasungarria, parte-hartzea, lotura sozialak eta auzoarekiko loturak, belaunaldien eta kulturen arteko topaketa eta osasunerako hezkuntza, besteak beste.

#### **2. Deialdiaren xedea**

Deialdi honen xedea da Vitoria-Gasteizko udalerrian hiri-nekazaritza ekologikoko ekimen komunitarioak egiteko laguntza ekonomikoa ematea, hauek barne:

- Nekazaritza edo basozaintzarekin lotutako ikastaroak, hitzaldiak eta lantegiak antolatzea.
- Nekazaritza nahiz basozaintza heziketa edo zabalkundearekin ikuspuntutik jorratzen dituzten dokumentuak –paperezkoak nahiz digitalak– erostea.
- Dinamizatzeko, parte-hartzea sustatzeko, auzoarekiko eta gizartearekiko loturak sortzeko, belaunaldien eta kulturen arteko topaketak egiteko eta esperientziak trukatzeko jarduerak.
- Ura, energia eta antzekoak hornitzea.
- Ekimenari lotutako aseguru-tasak kontratatzea.
- Ekimenari lotutako treska eta material suntsikorra erostea.
- IGiko teknikarien iritziz horien parekotzat jo daitezkeen beste batzuk.

#### **3. Dirulaguntzen plan estrategikoa**

Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (2025-2027) dago jasota Vitoria-Gasteizko udalerrian hiri-nekazaritza ekologikoko ekimen komunitarioak egiteko dirulaguntzen deialdiari dagokion dirulaguntza-ildo/ekintza; Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko urtarrilaren 17an onetsi zuen aipatutako plana.

Ildoaren xede estrategikoa hiri- eta lurralde-jasangarritasunaren arloan herritarren pres-takuntza, informazioa, sentsibilizazioa eta parte-hartzea sustatzea da, inplikaturako gizarte- eta ekonomia-eragile guztien parte-hartzea ziurtatuz.

#### **4. Ekimenek bete beharreko betekizunak diru-laguntza jasotzeko**

Vitoria-Gasteizko udalerrian hiri-nekazaritza ekologikoaren alorreko ekimen komunitarioak garatzeko proiektuak izango dira dirulaguntzaren xede. Herritarrek alor horretan parte hartzea eta gizartea ingurumen-hezkuntzan eta kontzientziazioan inplikatzeko laguntzea lortu nahi da ekimen horien bidez.

Gauzatzeko epea: 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte egiten diren ekimenak baino ez dira diruz lagunduko.

Gauzatzeko eremua: Vitoria-Gasteizko udalerrian egiten diren ekimenak baino ez dira diruz lagunduko.

Ekimenek ez dute ekarriko zuzeneko merkataritza etekin komertzialik pertsona eta entitate onuradunentzat.

#### **5. Hartzaileak**

Nortasun juridikoa duten Vitoria-Gasteizko irabazi-asmorik gabeko gizarte eta auzo elkarte eta entitateak eta ondasun-erkidegoak izan daitezke onuradunak, betekizun hauek betetzen badituzte:

- Vitoria-Gasteizko udalerrian kokatuta izatea.
- Hiri-baratzezaintza edo lorezaintza ekologikoko proiektu komunitarioa gauzatzea.
- Gizarte Segurantzari, Vitoria-Gasteizko Udalari eta Arabako Foru Aldundiari ordaindu beharrekoak ordainduta izatea.
- Jarduera horiek egiteak 2026an gastuak ekartzea –fakturen bitartez egiaztatu daitezkeenak–, hiri-baratzezaintza edo -lorezaintza ekologikoko jarduera komunitarioari estu-estu lotuak. Honako hauek joko dira jarduerarekin zerikusia duten gastutzat:
  - Nekazaritza edo basozaintzarekin lotutako ikastaroak, hitzaldiak eta lantegiak antolatzea.
  - Nekazaritza nahiz basozaintza heziketa edo zabalkundearekin ikuspuntutik jorratzen dituzten dokumentuak –paperezkoak nahiz digitalak– erostea.
  - Dinamizatze, parte-hartzea sustatzeko, auzoarekiko eta gizartearekiko loturak sortzeko, belaunaldien eta kulturen arteko topaketak egiteko eta esperientziak trukatzeko jarduerak.
  - Ura, energia eta antzekoak hornitzea.
  - Ekimenari lotutako aseguru-tasak kontratatzea.
  - Ekimenari lotutako treska eta material suntsikorra erostea.
  - IGiko teknikarien iritziz horien parekotzat jo daitezkeen bestelako gastuak.

Dirulaguntza jasotzen duten elkarte eta entitateek behar den informazioa eman beharko dute, eta beharrezkotzat jotzen bada, nekazaritza ekologikoko ekimena garatzen ari den edo garatuko den lekura sartzen utzi IGiko teknikariei, aurkeztu dituzten fakturak eta horiekin lotutako proiektuak bat datozen egiaztatzerik izan dezaten.

Elkarte bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu ahalko du.

#### **6. Aurrekontu zuzkidura eta diru-laguntzaren zenbatekoa**

IGIk 20.000,00 euroko gehieneko kreditua bideratuko du deialdira, CEAREN 2026rako aurrekontuko 0110.1722.47107 partidaren kontura. Horretarako, kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da.

Diruz lagundutako zatia ez da aurkeztutako proiektuaren aurrekontu osoaren ehuneko 80tik gorakoa izango. Elkarre bakoitzari emandako diru-laguntzako kopuru handiena 3.500,00 eurokoa izango da.

Ekimenari lotutako partaidetza dinamizatzeko eta sustatzeko jarduerari dagozkien kostuek ezin izango dute justifikatutako guztizko gastuaren ehuneko 30 gainditu.

Baldin eta diru-laguntza horietarako dagoen aurrekontuak ez badu aukerarik ematen onartzen diren eskabide guztiek aurkeztutako gastuak estaltzeko, hainbanaketa egingo da proiektu guztien artean, eta diruz lagundutako ehuneko murriztuko, harik eta dagoen aurrekontuarekin aurre egin dakiokkeen kopurura egokitu arte.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak bateragarriak izango dira ekimen bera gauzatzeko eskuratzen diren beste batzuekin. Dena den, eskabidea egitean, aurkeztutako proiekturako eskatu, jaso edo aurreikusitako bestelako diru-laguntzak adierazi beharko dira. Helburu berei erantzuteko beste diru-laguntzarik jasoz gero, oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak egokitzerik izango da, beharrezko denaz gaindiko finantzaziorik izan ez dadin.

Elkarren arteko lehia baliatuko da diru-laguntzak emateko prozedura gisa. Ezer baino lehen, proiektuak balioetsiko dira, oinarri hauetan ezarritako irizpideak kontuan harturik. Prozeduran kontuan hartuak izan daitezten, proiektuek 30 puntu lortu beharko dute gutxienez. Beraz, puntuazio hori lortzen ez duten proiektuak laguntzak banatzeko prozesutik kanpo geratuko dira eta, horrenbestez, ez dute diru-laguntzarik jasoko.

### **7. Eskabidea aurkezteko epea eta aurkeztu beharreko agiriak**

Eskabideak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Eskabideak eta agiriak aurkezteko lekua: Eskabideak hainbat modutan aurkez daitezke: Herriarrei laguntzeko bulegoetan (aurrez aurre), Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan, eta legez aurreikusitako gainerako moduetan, Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen ildotik.

Agiri hauek aurkezten behar dira:

– Eskaera elkarrearen edo erakundearen lehendakaritzak aurkeztuko du (udalaren web orrian dagoen ereduaren arabera [www.vitoria-gasteiz.org/subvenciones](http://www.vitoria-gasteiz.org/subvenciones)).

– Eskaria izenpetzen duenaren ordezkartza-ahalmenaren egiaztatzea.

– Proiektuaren memoria, aurrekontu xehea barne. Proiektua balioesteko, memoriak alderdi hauei buruzko informazioa jaso beharko du gutxienez:

- Proiektuak deialdiaren helburuei egiten dien ekarpena. Oinarriak, helburuak, hartzaileak, jardueren deskribapena eta garapena, ebaluazio-proposamena.

- Proiektuaren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa. Metodologia, garatzeko faseak, antolakuntza eta aurrekontua.

- Eskatzaileen artean emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko ekintzak eta politikak baita dirulaguntza-deialdira aurkeztutako proiektuan genero-ikuspegia txertatzearekin lotutako beste alderdi batzuk.

- Proiektu bera udalaren beste sail batzuen diru-laguntza deialdietara ez dela aurkeztu adierazteko erantzukizunpeko aitortzea.

Dena delako erakundeak administrazio honekiko zerga betebeharrak beteak dituela egiaztatzen duen agiria eskatuko dio Vitoria-Gasteizko Udalaren IGIk.

Aurkeztutako eskabideen gaineko ebazpena albait egokiena izan dadin, beste agiririk ere eskatu ahal izango du Vitoria-Gasteizko Udalaren IGIk.

## 8. Aurkeztutako agirietako akatsak zuzentzea

Eskabideak oinarri hauetan xedatutako baldintzak bete ezean, organo eskudunak errekerimendua egingo dio erakunde edo pertsona interesatuari, 10 eguneko epean hutsak zuzen ditzan (epe hori ezin izango dela inolaz ere luzatu ohartarazita). Halaber, ohartaraziko zaio horrela egin ezean eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, beti ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko, 39/2015 Legeak xedatutakoaren arabera ebazpena eman ondoren.

## 9. Ebaluazio-batzordea

Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko batzordea osatuko da: Vitoria-Gasteizko Udalaren IGiko Herritarrak Aktibatze Arloko 3 teknikari osatuko dute balorazio-batzordea, eta horien artean izendatuko dira batzordeburua eta idazkaria.

Ebaluazio-batzordeak egingo du ebazpen-proposamena, oinarri hauetan adierazitako irizpideei jarraituz.

## 10. Diru-laguntzak emateko irizpideak

Ondoren azaltzen diren irizpideak hartuko dira aintzat eskatutako diru-laguntzei lehentasuna, baietza edo ezetza emateko; gutxienez 30 puntu lortu beharko dira halakorik eskuratzeko:

- Proiektuaren eta deialdiaren xedearen arteko erlazioa. 30 puntu gehienez.
- Proiektuaren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa. 25 puntu gehienez.
- Eskatzaileen artean emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko ekintzak eta politikak baita dirulaguntza-deialdira aurkeztutako proiektuan genero-ikuspegia txertatzearekin lotutako beste alderdi batzuk: 5 puntu gehienez.

Deialdiaren ebazpenean, alderdi hauek zehaztuko ditu Vitoria-Gasteizko Udalaren IGik:

- Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa eta ordaintzeko modua.
- Diru-laguntzaren izaera eta zein baldintzatan ematen den.
- Zer-nolako kontrol-bideak baliatuko diren, eta zenbatean behin.

## 11. Deialdiaren ebazpena

IGiren estatutuen arabera (2006ko apirilaren 5eko ALHAOn (40 zenbakia), IGiren kontseilu errektorea da deialdiaren izapidean jarraitu beharreko prozedura eta dagozkion oinarriak onartzeko organo eskuduna. Deialdi honen ebazpena IGiko lehendakariari eskuordetzen zaio.

Vitoria-Gasteizko Udaleko IGiko zerbitzu teknikoak izango dira prozeduraren organo instruktio egilea.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22.1 artikuluan eta Diru-laguntzei buruzko udal ordenantzaren 8.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz (2023ko uztailaren 28ko ALHAOn (88 zenbakia), proposamena egiteko organo eskuduna oinarri hauetan deskribatu den ebaluazio-batzordea izango da, eta bertan zehaztutako osaera izango du.

Gehienez hiru hilabeteko epean emango da ebazpena, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunetik kontatuta.

ALHAOren eta Vitoria-Gasteizko Udalaren iragarki-taularen bidez egingo dira dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenaren jakinarazpenak, betiere Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari jarraituz.

Erabakia hartzeko epea igarotzen delarik berariazko ebazpenik izan ez bada, laguntza-eskabideak ezetsi egin direla ulertu beharko da.

Ebazpen honen aurka jarri ahal izango dira:

a. Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, iragarki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatuta.

b. Aukeran, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean —jakinazte-egunaren biharamunetik—, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, eta horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

## 12. Diru-laguntza ordaintzea

Emandako diru-laguntza honela ordainduko da:

– Diruz lagundutako zenbatekoaren ehuneko 80, diru-laguntza onartu ondoren.

– Gainerako ehuneko 20a, proiektua egin izanaren justifikazioa aurkeztu ondoren; jarduera amaitu eta hiru hilabeteko epean aurkeztu behar da hori.

2026ko aurrekontuaren kargura ordainduko da.

Oinarrien zazpigarren puntuan jasotakoaren arabera justifikatuko da.

Ezingo da diru-laguntza ordaindu harik eta onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, ez eta dirua itzultzea bidezkoa dela ebatzi delarik zordun bada ere.

## 13. Gastuak justifikatzea

### 13.1 Justifikatzeko epea.

Emandako dirulaguntzak 3 hilabeteko epean justifikatu beharko dira, programa edo jarduera amaitzen denetik kontatzen hasita, edo hura eman zenetik, jarduera gauzatu ondoren emandakoa bada.

### 13.2 Formatu digitalean aurkeztutako frogagirien ezaugarriak.

Pdf formatuan aurkeztu behar dira, eta digitalki sinatuta egon behar dute ezinbestean. Kapituluaren edo gastu motaren arabera ordenatu behar dira, justifikazioko kontu arruntaren 2. eranskinaren arabera.

Gomendioak: artxiboei zein eranskinei dagokienez, artxibo bakoitzaren gehieneko tamaina 20 megabyte izango da, eta gehieneko bereizmena, hazbeteko 200 puntukoa, zuri-beltzean.

### 13.3 Funts propioen edo beste erakunde batzuetatik jasotakoaren justifikazioa.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoaren arabera, diruz lagundutako jardueraren aurrekontuaren ehuneko 100 justifikatu beharko da, eta ez emandako zenbatekoa bakarrik, emandako dirulaguntzari egozten zaizkion gastuak zehaztuta.

Horretarako, justifikazioko kontu arruntaren 1. eranskina bete behar da, eta bertan adierazi beste erakunde publiko edo pribatu batzuen baliabideekin finantzatzen diren gastuak, eta erakunde onuradunaren baliabide propioekin direnak. Azken kasu honetan, ez da horien ordainketa justifikatzen duten agirik aurkezteko beharrik (nominak, fakturak...).

### 13.4 Justifikatzeko sistema.

Dirulaguntzaren pertsona edo erakunde onuradunek dirulaguntza hori justifikatu beharko dute, ondoren adierazitako dokumentazioa aurkeztuz.

Dokumentazioa aurkezterakoan oinarri hauetan agiriak normalizatzeko emandako irizpideak hartu beharko dira kontuan.

a. Egindako proiektuaren azalpen-memoria, egindako jarduerak eta ortutako emaitzak barne. Horretarako dirulaguntza jaso duen jarduera dela eta egindako azterlan, egitarau, argitalpen, kartel eta bestelako agiri grafiko nahiz idatzizkoen ale bana erantsiko da.

– Horretaz gain, euskararen erabileraren jarraipena ere agertu behar da. Horretarako euskararen erabileraren jarraipena egiteko fitxa erabiliko da.

b. Jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, justifikazioko kontu sinplifikatuaren ereduaren arabera. Atal hauek izan beharko ditu:

1: Diruz lagundutako jarduerarekin lotuta egindako gastuen zerrenda, honako hauek zehaztuta: faktura-zenbakia, jasotzailea/hornitzailea, kontzeptua, zenbatekoa eurotan eta ordainketa data.

Ekimenari lotutako partaidetza dinamizatzeko eta sustatzeko jarduerari dagozkien kostuek ezin izango dute justifikatutako guztizko gastuaren ehuneko 30 gainditu.

2: Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarreraren zerrenda, diru-sarrera publiko edo pribatu guztiak zehaztuz, bazkideek diruz lagundutako jarduerak egiteko jarritako kuotak barne. Honako hauek adieraziko dira: zenbatekoa; diru-sarreraren jatorria den entitatea; administrazio publikoen, erakunde pribatuen edo publikoen dirulaguntzak, eta beste diru-sarrera batzuk.

3. Erabili ez diren zenbatekoen itzulketa, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa likidatzearen.

Erantzukizunpeko adierazpena:

– Atalean agertzen diren gastuen zerrenda aurreikusitako xedearen edo helburua gauzatzearren ondorioz sortu da, deialdiaren oinarrietan ezarritako epeetan gauzatu dira, ordainduta daude eta IGIren ekarpenarekin finantzatu dira.

– Erakundeak/elkarteak ez du soldatapeko langilerik.

– Badu bestelako finantzaketa-iturririk proiektua finantzatzeko:

- IGIk diruz lagundutako proiektua gauzatzean euro-ko gastua izan du (kopurua aipatu), zeharkako gastuei dagokienez.

- Ez du beste diru-laguntzarik eskatu, ezta jaso ere.

- Justifikatzeko fakturretan agertzen den BEZa ez da kopuru kengarria erakunde horrentzat, dirulaguntzak barne har dezakeen gastutzat.

Eskatutako erakunde onuradunek dokumentazioa entregatzea.

Justifikazio-agiriak aurkezteko azken egunetik aurrera hautatuko du Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak zein erakunde onuradunek egiaztatu behar dituzten agiriak. Egiaztapena izapidetzen diren dossierren ehuneko 30i aplikatuko zaio gutxienez; horien zenbatekoak dirulaguntza-deialdi honetarako bideratutako aurrekontu-kredituaren zenbatekoaren ehuneko 30 izan beharko du gutxienez. Erakunde onuradunak hautatzeko, lehenik eta behin, alfabeto-hurrenkeraren araberrako zerrenda osatuko da, ikastetxeen izen ofizialekin, eta, ondoren, laginketa sistematikoko prozedura baten bidez, ausazko abioa eta beheranzko biribiltzea izango dituen, egiaztapena aplikatuko zaien erakundeak definituko dira. Alfabeto-hurrenkera "R" letratik hasiko da, letra hori ezarri baitu zozketa bidez Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2026-2027 ikasturtean ordezkapenak eta beste hautaketa-prozesu batzuk kudeatzeko (2025eko azaroaren 5eko EHAA 213 zenbakia). Laginketa-prozedura sistematikoa honetan datza: dossier-kopurua (dirulaguntza eman zaien dossierren kopurua) laginketa-kopuruaz (izapidetutako dossierren ehuneko 30) zatituko da, laginketa-tarte bat lortzeko. Ondoren, ausaz aukeratuko da laginaren lehen elementua, eta gero, laginketa-tartetik eta laginaren lehen elementutik abiatuta, lagina osatuko duten

gainerako entitateak hautatuko dira. Adibide gisa: entitateen kopurua 27koa bada, eta egiaztatu-tako entitateen gutxieneko portzentajea ehuneko 30ekoa (hots, 9 entitate), aurreko bi zenbakien arteko zatidura izango da laginketa-tartea, hots, 3. Ondoren, ausaz 1 eta 3 bitarteko zenbaki bat hautatuko da. Ausaz aukeratutako zenbakia 2a bada, adibidez, 2, 5, 8, 11, 14, 17, 20, 23 eta 26 zenbakiak dituzten dossierrek osatuko dute egiaztatu beharreko entitateen lagina. Dossier horien zenbatekoa aurrekontu-kredituaren zenbatekoaren ehuneko 30 baino txikiagoa balitz, ausaz beste zenbaki bat hautatuko litzateke, eta modu berean jokatu. Hautatutako erakunde onuradunei eskatuko zaie hamar egun balioduneko epean egiazta dezatela emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, jatorrizko fakturak eta ordainketa justifikatzen duten agiriak aurkeztuta, salbu eta justifikatzen bada ezinezkoa dela dokumentazioa epearen barruan aurkeztea, ikastetxea itxita dagoelako ezarritako epearen barruan; kasu horretan, dokumentazioa 2025eko irailaren 9tik aurrera aurkeztu beharko da, hamar egun balioduneko epean. Agiri guztiak erakunde onuradunaren izenean eginda egon beharko dira, dirulaguntzaren xede diren gastuekin bat etorri beharko dute, eta, gainera, emandako dirulaguntzaren zenbatekora arteko justifikazioa egin beharko da. Egindako jarduerak beste modu batez egiaztatu ezin direnean bakarrik onartuko dira hartu-agiriak. Hartu-agiria izenpetzen duena ezingo da izan enpresaburua edo profesionala; izan ere, hala izanez gero, faktura egin eta eman beharko bailuke ezinbestean. Hartu-agirian datu hauek adierazi beharko dira: — Jaulkitzailearen eta jasotzailearen izen-deiturak, Identifikazio Fiskalerako Zenbakia (IFZ) eta helbideak. — Eragiketa edo zerbitzuaren deskribapen zehatza, eta prezioa, guztira. — Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) atxikipena. Foru Ogasunean egindako.

Emandako dirulaguntzaren justifikazio eza edo justifikazio eskasa.

Justifikatzeko obligazioa ez betetzeak nahiz behar bezala ez justifikatzeak jasotako kopuruak eta dagozkien interesak itzuli beharra ekar lezaketek berekin, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 37.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik.

#### **14. Erakunde edo pertsona onuradunaren betebeharrak**

Emandako diru-laguntza onartzea; horrek berekin dakar oinarri hauetan ezarritako betekizunak eta arauak onartzea. Hain zuzen ere, diru-laguntza eman izanaren jakinarazpena jaso duten egunetik kontatuta hamabost eguneko epean onuradunak berariaz eta idatziz uko egiten ez badio, onartu egiten duela ulertuko da.

Finantzatutako jarduera burutzea, eta jasotako funtsak horretarako baliatzea, diru-laguntza emateko hitzarmenean adierazi bezala.

Proiektua gauzatzean aldaketarik egin bada, Vitoria-Gasteizko Udaleko IGLri jakinaraztea.

Helburu berarekin beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu nazional nahiz nazioartekoren batek emandako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jasoz gero, Vitoria-Gasteizko Udaleko IGLri jakinaraztea, baita zertarako baliatu diren ere. Jakin bezain laster eman beharko da horren berri.

Diruz lagundutako proiektuaren jarraipena egite aldera, eskatutako agiri guztiak eman behar zaizkio Vitoria-Gasteizko Udalaren IGLri.

Diru-laguntzaren erabilera justifikatzea, oinarri hauetako hamalagarren klausulan ezarritako kontzeptuen arabera.

Argi eta garbi adieraztea Vitoria-Gasteizko Udalaren IGLren diru-laguntza jaso dela -jarraibide teknikoak aintzat harturik eta ematen zaion logotipoa baliatuz- sortzen den material guztian: dokumentazioa; jardueraren web-orria, halakorik izanez gero; laguntzaren ondorio den pres-takuntza-, informazio-, sustapen- eta publizitate-material oro, euskarria edozein delarik ere; aurkezpen, ospakizun eta ekitaldietan, eta bestetan.

Material horiek herritar orori zuzenduak badira, bi hizkuntza ofizialetan egin beharko dira. Era berean, diru-laguntzaren xedea jarduera ireki bat baldin bada, hots, ikuskizun edo ekitaldi publiko bat antolatzen bada, bi hizkuntza ofizialetan egin beharko da horren zabalkundea.

## 15. Dirua itzultzea

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan eta Vitoria-Gasteizko Udalaren diru-laguntzak arautzeko ordenantza orokorrean -2023ko apirilaren 21eko osoko bilkuran eman zitzaion hasierako onespena, eta 2023ko uztailaren 28an ALHAOn (88 zenbakia) argitaratu-xedatutakoaren arabera, entitate edo pertsona onuradunak itzuli egin beharko ditu jasotako diru-kopuruak, baldin eta:

a. Eskatutako baldintzak faltsutuz edo diru-laguntza eskuratzea galaraziko zuketenak ezkutatzuz eskuratu bada diru-laguntza.

b. Xedea, jarduera edo proiektua bere osotasunean edo partez betetzen ez bada, edo diru-laguntza ematea ekarri zuen jokabideari jarraitzen ez bazaio.

c. Justifikatzeko obligazioa bete ez bada edo behar adina justifikatu ez bada, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan eta oinarri hauetan xedatutakoaren ildotik.

d. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 18. artikuluko 4. idatz-zatian eta oinarri hauetako 43.ean jasota dagoenaren arabera egin beharreko zabalkundea ez egitea.

e. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 15. artikuluetan finantzak aztertu eta kontrolatzeko aurreikusitako ekintzei aurre egin, aitzakiak jarri, enbarazu egin nahiz uko egin bazaie, edo kontabilitatearen, erregistroaren edo agiriak gordetzeko obligazioaren alorrean bete beharrekoak bete ez badira, baldin eta horrek ezinezko bihurtzen badu honako hauek egiaztatzea: jasotako funtsak zertarako baliatu diren, helburua bete den, diruz lagundutako jardueren errealitatea eta erregularitasuna, edo helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jaso den, beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribaturengandik –dela estatuko, dela Europar Batasuneko– edo nazioarteko erakunderen batengandik.

f. Vitoria-Gasteizko Udalaren IGIk erakunde laguntzaileei eta erakunde nahiz pertsona onuradunei jarritako betebeharrak bete ez badira, baita horiek diru-laguntza eman zitzaizenean beren gain hartutako konpromisoak bete ez badituzte ere, diru-laguntza ematerakoan oinarritzat hartu ziren helburuak lortzeko moduari, jarduera bideratzeko moduari, proiektua gauzatzeko moduari nahiz nork bereganatu beharreko jokabideari dagozkiozkiolarik edo eragiten diotelarik.

g. Vitoria-Gasteizko Udalaren IGIk erakunde laguntzaileei eta erakunde nahiz pertsona onuradunei jarritako betebeharrak bete ez badira, baita horiek diru-laguntza eman zitzaizenean beren gain hartutako aurrekoen beste konpromisoak bete ez badituzte ere, eta horrek ezinezko bihurtzen badu honako hauek egiaztatzea: jasotako funtsak zertarako baliatu diren, helburua bete den, diruz lagundutako jardueren errealitatea eta erregularitasuna, edo helburu bererako, batera, beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk -dela Estatuko, dela Europar Batasuneko- edo nazioarteko erakunderen batek emandako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jaso den.

h. Europar Batasuneko Itunaren 87. artikulutik 89.era bitartekoetan xedatutakoaren ildotik itzultzeko beharra dakarren erabakia hartzen bada.

i. Dagokion deialdian edo hitzarmenean aurreikusitako gainerako kasuetan.

Erakunde zein pertsona onuradunak edo, kasua denean, erakunde laguntzaileak hartutako konpromisoak ia osotasunean bete dituztenean eta konpromiso horiek asebetetzeko egoki jardun duela egiaztatzen denean, proportzionaltasun printzipioaren aplikazioak zehaztuko du itzuli beharrekoaren zenbatekoa.

Halaber, diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 19. artikuluko 3. atalean adierazitako egoera egokitzen bada, itzuli egin beharko da diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen duen diru-kopurua, eta horri dagozkion atzerapen interesak galdatu ahal izango dira.

Vitoria-Gasteizko Udalaren Diru-laguntzak eta Laguntzak arautzeko Ordenantzan (2023ko uztailaren 28ko ALHAOn (88 zenbakia) eta diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

#### **16. Arau-haustek eta zigorrak**

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzei buruzko ordenantzaren IV. tituluaren xedatutakora egokituko da arau-hauste eta zigorren erregimena (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia).

#### **17. Aplikagarri den legedia**

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetan, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzei buruzko udal ordenantza aplikatuko da (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia), baita Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea (IV, tituluaren) eta horren araudia ere —uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsia—, eta aplikagarri diren gainerako arauak.

#### **18. Informazioa eta aholkularitza**

IGIk argibideak eta aholkularitza eskainiko dizkie deialdi honen barruan dirulaguntza eskatu nahi duten erakundeei. Galderak helbide elektroniko honetara bidal daitezke: Jesús Mesanza: [jmesanza@vitoria-gasteiz.org](mailto:jmesanza@vitoria-gasteiz.org); Telefonoa: 945 161616; luzapena: 3385.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko otsailaren 25ean

*Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko lehendakaria*  
**BORJA RODRIGUEZ RAMAJO**